

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANTAUURIKO URKIDETZA UR PARTZUERGOA

Ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu tasei buruzko zergadunen errolda, 2020ko bigarren hiruhilekoko

Erabiltzaileak Hartzeko Zerbitzuak ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu tasei buruzko zergadunen 2020ko bigarren hiruhilekoko errolda egin du.

Lehendakariak onetsi egin du 2020ko abuztuaren 21eko 116 zenbakiko ebazpenaren bidez, eta jendaurrean jarriko da hamabost (15) egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesa dutenek Herritarrak Hartzeko Zerbitzuan aztertu ahal izango dute zergadunen errolda hori, 07:45ak eta 15:00ak bitartean, aldez aurretik hitzordua eskatuta (astelehenetik ostiralera). Zerbitzu hori Amurrioko udaletxean dago (Juan de Urrutia plaza zk.g.; behe solairua). Era berean, egoki deritzeten eta beren eskubide diren argibideak eskatu eta alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Zergadunek erroldak jendaurrean jartzeak likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitu Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikuluan 3. paragrafoan.

Zergadunek berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dute lehendakariaren aipatutako ebazpenaren aurka. Horretarako hilabete (1) izango dute iragarkiaren jendaurreko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Argibideak, alegazioak, erreklamazioak eta berraztertze errekurtsuak lehendakariari jarriko zaizkio, adierazitako epeen barruan.

Borondatezko aldia ordaintzeko epea bi hilabetekoa izango da, 2020ko urriaren 19tik abenduaren 18ra, bi egun horietan barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2020ko urriaren 19an kobratuko zaie.

Tasa hori helbideratuta ez dutenek Caixabankek Amurrioko Elexondo kaleko 21ean duten bulegoan ordaindu beharko dute, astelehenetik ostiralera 08:30ak eta 10:30ak bitartean, etxean jasotako faktura eskuetan dutela. Ordainketa ostegunetan bakarrik egin ahal izango da, 08:30etik 10:30era. Faktura hori galdu edo jaso ez bada, Herritarrak Hartzeko Zerbitzuan (Amurrioko udaletxea) jaso ahal izango da haren kopia.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarquak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Izoria, 2020ko irailaren 10a

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES